



DIRU-SARRERAK

Gure helburu nagusietako bat jasangarritasunean fedea duten eta horretan dirua gastatzeko prest dauden bezeroei saltzea da; hortaz, gure produktua 4'99€ tan salduko da.

Enpresaren diru sarrerak aktiboaren salmentaren bitartez jasotzen dira. Gure produktuaren prezioa finkoa izango da. Gure iritziz, hauek dira ECOFROLADAREN prezioak ahalik eta eraginkortasun gehien izateko aukera ematen duen modua.

Proiektua garatzeko eta gure honi hasiera emateko, 4.000€ko kapitala jarriko dugu; hau da, gutako bakoitzak 1.000€ jarriko ditu. Diru kantitatea ondo kudeatzea eta era eraginkorrean erabiltzea egokiena da; beraz, 4.000 euroko inbertsio bat egitea aproposa iruditzen zaigu. Izan ere, gure bizitzan zehar aurreztutako dirua izango da hori.



Kontuan hartuz gastu handiak izango ditugula, esaterako lokal baten alokairua, wifi-a, elektrizitatea, telefonoa, tresneria, web orria... lehen aipatutako inbertsioaz gain beste diru iturri batzuk beharko ditugu; hortaz, inbertitzaile posibleak carrefour, eusko label eta Bioleku izan daitezke. Horretaz aparte, udaletxetik jasotako diru-laguntzez eta beste entitate finantziarioek eskainitako maileguez baliatuko gara.

Gainera, gaur egungo gizartean biztanleria oso kontzientziatuta dago eta gero eta errazagoa da produktu lokalak eta kalitate onekoak lortzea; horregatik, bezero asko izatea eta gure negozioa errentagarria izatea espero dugu. Izan ere, produktu jasangarriak modan jarri dira; esaterako, Espainia ekoizpen ekologikoan mundu mailako potentzia liderretako bat da, eta gaur egun, baita Eco eta bio produktuak gehien kontsumitzen dituzten 10 merkatuetako bat ere. Horregatik, gure produktuak arrakasta handia izan dezakeela uste dugu.

Laburbilduz, gure enpresa sortzeko hasierako inbertsioa 4.000 eurokoa izango da; halere, beste iturri batzuetatik dirua lortzea espero dugu. Gainera, gure entsaladak harrera ona izango duela uste dugu, produktu ekologikoen eskaria aldi oro hazten delako.